



❖ LITERATUR SOLASALDIAK 'Korapiloak' liburuaz ariko dira gaur solasean

Literatur solasaldien barruan, Jasone Osororen *Korapiloak* liburuaz ariko dira hizketagai gaur. Ane Mayozen ariko da dinamizatzaile lanetan. Liburutegian, 19:30etan. ||

❖ ATEZ ATEKOA Jarraipen batzordea gaur jarriko da martxan

Hernaniko atez ateko Jarraipen Batzordea gaur jarriko da martxan, lehenengo bilerara gaur izango baita. Bilera irekia da eta nahi dutenek aukera izango dute parte hartzeko. Bilera 19:00etan hasiko da Udaleko Areto Nagusian. Landuko diren gaiak honakoak izango dira: bileraren helburuen azalpena; atez ateko prozesuaren inguruko informazioa; azken hilabeteetako gertakariak; eman beharreko hurrengo urratsak zehaztea; eta saioaren balorazioa. ||

❖ GOBERNU BATZORDEA Atez atekoa hizketagai, gaur

Tokiko Gobernu Batzordeko bilera izango da gaur Alkatetzan (2. pisua), 14:00etan. Sei gai izango dira hizketagai, besteak beste, atez atekoari buruzko hiru puntu. ||

❖ SENDABELAR IKASTAROA Zozketa bidez erabakiko da gaur zeintzuk egingo duten ikastaroa

Biterin sendabelarren ikastaroa hasiko da martxoan, eta bertatik jakinarazi dutenez, jende gehiegik eman du izena eta beraz, zozketa bidez erabakiko da zeintzuk izango duten aukera ikastaroa egiteko. Zozketa gaur egingo da, 12:00etan, Biterin. ||

'Agussssto' antzezlanarekin hasiko da antzerki zikloa, astelehenean

Sarrerak atzo jarri ziren salgai. Goizean erosteko, 'Aitarekin bidaian' antzezlanerako soilik daude sarrerak; arratsaldean, berriz, hiru antzezlanak eskura daude oraindik.

AGUSSSSTO, *Aitarekin bidaian* eta *Xabinaitor*, horietatik aurtengo lehenengo antzerki zikloan ikusgai izango diren hiru antzezlanak. Emanaldiak hiru egun jarraian izango dira, astelehenean hasita. Biteri kultur etxean, arratsaldeko 20:00etan.

Ohi bezala, gustu guztiak asetzeko aukera izango da. Umorea nagusi izango da *Agussssto* eta *Xabinaitor* antzezlanetan. Eta *Aitarekin bidaian*, umore puntua bakarrik ez, dramarako osagaiak ere izango dira. Antzerki ziklo honetan, barre egiteko eta hunkitzea aukera izango da.

Goizeko sarrerak ia agortuta

Erosteko garaian, herritar guztiak aukera bera izateko (lana dela eta), sarrerak banatu egiten dira goizean eta arratsaldean. Sarrerak atzo jarri ziren salgai eta Biteritik jakinarazi dutenez, aukera guztiak jada ez daude eskura. Goizez erosiz gero,

► Hiru antzezlan

AGUSSSSTO

Haria: Bi pertsonaia: Patxi euskalduna, Varadero eta turismo sexual zalea. Estela, emakume kubatarra eta Patxiaren bihotza konkistatu duena...

Bien artean umoredun espektakulua eskainiko digute, dibertigarria, ordubetez parrez lehertzeko modukoa, hirurogei minutu gustura pasatzeko... Agussssto!!!

Konpainia: Glu Glu producciones.

Antzezleak: Gorka Aginagalde eta Gurutze Beitia.

Hizkuntza: Gaztelera.

Eguna: Otsailak 22, astelehena.

AITAREKIN BIDAIA

Haria: ...Bi bidaideak, aita-emeak, elkarrekin bizitzera kondenatuta geratu dira. Halaxe eskatu zion amak hil aurretik Patxi semeari, haren faltan, aita zaintzeko. Patxi saiatuko da amari emandako hitza betetzen baina, laster jabetuko da aita ez dela jada amak ezagutu zuen gizona; orain beste bat dela...

Aitarekin bidaian antzezlanak ikusteko bakarrik geratzen dira sarrerak. Arratsaldean, berriz, hiru antzezlanetarako bada oraindik aukera. Dena

Historia honek itxuraz dramarako osagai guztiak dituen arren, umoreari ere tokia utziko dio, momentu barregarri eta hunkigarriak sortuz.

Konpainia: Hika antzerki taldea.

Zuzendaria: Aintzane Intxaurrea.

Antzezleak: Joxe Ramon Soroz, Joseba Apaolaza eta Xabier Muguruza (musika zuzenean).

Hizkuntza: Euskera.

Eguna: Otsailak 23, asteartea.

XABINAITOR

Haria: Superman, Batman, Spiderman... superhero hauen garaia pasa zen. Orain, gurean... EGA agiria duen superhero bakarraren garaia heldu da. *Xabinaitor*, 8 urtetik 158 urte bitartekoentzako antzerki lana da.

Wazemank-eko lan taldearen eskutik.

Konpainia: Gorringo.

Zuzendaria: Anartz Zuaza.

Antzezleak: Mikel Pagadizabal, Mikel Laskurain, Egoitz Lasa, Ainere Tolosa, Ixabel Agirresarobe, Asier Sota eta Anjel Alkain.

Hizkuntza: Euskera.

Eguna: Otsailak 24, asteazkena.

Agusssstorako oso sarrera gutxi geratzen direla azaldu dute. Beraz, mugitu egin behar.

Goizez erosi nahi ditue-

nak, 09:30etatik aurrera izango du aukera; eta arratsaldean nahiago duenak, 19:00etatik aurrera. Prezioa: 5 euro. ||

Hiru hernaniar atxilotu zituzten atzo

Berri agentziek zabaldu zuten, larunbatetik atxilotuta dagoen Ibai Beobiderek lotura dutelakoan atxilotu zituen Guardia Zibilak. Segurako herritar bat ere bada tartean.

GUARDIA Zibilak lau pertsona atxilotu zituen atzo arratsaldean; tartean, hiru hernaniar Efe eta Europa Press berri agentziek jakitera eman zuten. Herritarrek Kronikari azaldutakoaren arabera, biko-

te bat atxilotu zuten Zikuñagan eta hirugarrena Juan Mari Maizkurrena Urkizu da, Lastaolan. Azken hori agentzia batzuek ere baieztatu zuten. Laugarrena Segurako herritarra litzateke: Euri

Albisu. Larunbatetik, Guardia Zibilaren esku atxilotuta eta inkomunikatuta jarraitzen duen Ibai Beobiderek lotura dutelakoan atxilotu zituzten. Herritarrek Kronikari azaldu ziotenez, Guardia Zibila

Zikuñaga, Akarregi poligonon eta Lastaolan ibili zen miaketak egiten.

Zikuñagan atxilotutako bikotearen izenak ofizialki ez zituzten argitaratu Kronikako erredakzioa itxi aurretik. ||

LARRE-GAIN
TOLARE SAGARDOTEGIA

*Satoz sagarda
Gernia edatera!*

943 55 58 46 - 616 28 78 67

LARRE-GAIN BASERRIA - EREÑOTZU - HERNANI

Sagardo naturala urte osoan botiletan salgai.

Hernaniko kronikako laguntzaile:

ORAUNE
PROMOCIONES

PROMOZIOAK

IGANDE EGUERDITAN
ERE IREKITA

IPARRAGIRRE
TOLARE SAGARDOTEGIA

WWW.IPARRAGIRRE.COM
osiñaga auzoa 10, HERNANI 943 550328

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egumez**: **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauzez**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA ● **GAUR** Egunak aurrera egin ahala, zerua lainotzen joango da eta euri pixka bat egingo du. Elur-kota 500 metro ingurutik 1000ra pasako da. Tenperatura igo egingo da. Min.2º / Max.9º.
● **BIHAR** Eguraldi goibela espero da eta euria egingo du, batez ere, arratsaldetik aurrera. Tenperatura igo egingo da berriro eta berarekin batera elur-kota. (euskaime)

❖ INAUTERIAK

Sardina erre eta negar batean bukatuko dira gaur inauteriak

MOZORROAK erantzi eta sardina erreta bukatuko dira gaur inauteriak. Urtero bezala, 18:30etan Gudarien plazatik abiatuta, sardina erraldoia kalean zehar pasiatuko dute, beltzez jantzitako alargunak, zapiak eskuetan dituztela, negar batean, eta dolu doinuak lagun. Kale buelta eginda, plazara iristean, disgusto ederrarekin, sardinari su emango diote eta hurrengo urtera arte agurtuko dituzte inauteriak.

Agujetak nonahi

Gaur agujetekin esnatuko zen bat baino gehiago, izan ere, atzo gazteen axeri dantzan ez zen kupidarik izan ohi bezala, eta ondoren zezen txikiakin zilipurdika ere ibili ziren batzuk. Eta arratsaldean erraldoi eta buruhaundiak! Txikiak lasaia ibiltzeko aukera izan zuten makilaje eta karetekin. ||



Kendu paretik... batorrelaaa!!!



«Nik enun tximeleta nahi...»



👁️ Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefona • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Intzineradorak 100 kilo kixkali, 24 kilo eskoria sortu

Hondakinen kudeaketaz herri batean polemika pizten denean, dena nahasten da (ohiturak, ordutegiak, usainak, estetika, kutsadura, dirua, politika...) eta ez da erreza izaten puntu zehatzetaz eztabaidatzea. Herritarrak nazkatzeko arriskua dago, eta asko sentitzen dugu. Baina egia ez diren informazioak ezin ditugu utzi pasatzen.

Kalean entzun dugu arrazoirik falta ez duen galdera hau: "Eta Atez Atekoarekin %80 aprobetxatzea lortzen badugu, zer egin beste %20 horrekin?". Interesgarria, gure helburuak "Zero Zabor" sortzea izan behar duelako. Baina aldi berean arrazoirik ez duen beste hau ere entzun eta irakurri da: "Atez Atekoaren ondoren zati bat geratzen da aprobetxatu ezinik, baina intzinerazioak ez du kondarrik

uzten, tratamendu 'finalista' da". Hau ez da egia eta jendeak jakin behar du.

Errauste planta batean hondakinak kixkaltzen direnean, erreketak horretan kondar asko sortzen da. Kondar batzuk airez zabaltzen dira inguruetan: gasak eta mikro-partikulak, osasunarenzako oso kaltegarriak. Baina kondar solido asko ere bai: errautsak (gatzelaniazko "cenizas") eta zepa edo eskoria, guzti hauek ere toxikoak.

Zenbat errauts eta eskoria sortzen du intzineradora batek? Gipuzkoako Batzar Nagusien bileran Ormazabal diputatuak berak aitortuta, Zubietan erre beharreko 263.000 tona zaborrek emango lukete 63.000 tona eskoria eta errauts, alegia %24. Kixkaltzera sartutakoaren pisuaren laurdena!

Kondar horiek, hondakinen pisu osoaren laurdena, zabortegi berezietan pilatu

behar dira, oso toxikoak baitira. Urte batzuetan esan zen usatuko zirela adreiluak egiteko, mendiko pistetan botatzeko, asfaltotarako... baina intzineradorak dauden lekuetan aspaldi konturatu ziren oso toxikoak direla.

Horra errausketaren eta Atez Atekoaren diferentzia bat gehiago. A-Aren ondorengo kondarrek ez dute kutsatzen, organiko guztia kendu zaielako, bertederoko kontrolatu merkea behar dute; gainera, %20 hori gehiago murriztea posible da. Aldiz, intzineradorearen kondarrak pozoiz beteta daude eta bertederoko espezial garestiak behar dituzte, bat baino gehiago gainera. Edo intzineradorearen ondoan bertan, edo urrutiago beste norbait pobreago eta ezjakinago bati tranpatan sartuta. Horra egia argi eta garbi.

**Joseba Iurramendi,
Hernanin Zero Zabor
taldearen izenean**

◆ PELOTA - BINAKAKO TXAPELKETA

Olaizola II-Mendizabal IIak 18-22 galdu zuten atzo

Binakako pelota txapelketako partidua jokatu zuten atzo Oier Mendizabal eta Aimar Olaizolak Xala eta Zubietaren aurka. Partidu gogorra izan zen eta aukerak izan arren, ez zuten garai-pena lortu: 18-22. Galtzen hasi ziren, baina partiduari beste itxura bat eman eta segidan 9 tanto eginda, aurretik jartzea lortu zuten: 11-8. Handik aurrera partidu parekatua izan zen, 12-12, 14-13, 16-17... Baina azken unean ezin eutsi.

Sailkapen orokorrari dagokionean, Olaizola II-Mendizabal II hiru punturekin daude Berasaluze VIII-Begino eta Gonzalez-Laskurain bezala. Oraingoan, Mendizabal eta Olaizolak laugarren postuan jarraitzen dute eta semifinaletara pasatzeko txartelarekin. Datorren igandean, Olaizola II-Mendizabal II Irujo eta Beroizen aurka neurtuko dira Eibarren. ||

◆ IGERIKETA

Espainiako Lurraldearteko Txapelketa jokatu dute Olatz Altuna eta Mañel Aizpuruak asteburuan

Euskadiko Igeriketa Federazioak (EIF-FVN) Mañel Aizpuru eta Olatz Altuna igerilari hernaniarrak aukeratu ditu, besteak beste, Espainiako Lurraldearteko Txapelketa jokatzeko. Txapelketa ostiraletik igandera jokatu da Madrilan. Aizpuruak 200L eta 400L frogatan hartuko du parte eta Altunak 50L eta 100L frogatan. Horrez gain, Aizpuru Madrilan geratzekoa da otsailaren 28ra arte bertako instalazioetan entrenatzen. Altunarekin batera ariko da azken hori bertan baitago Beka bat dela-eta. ||

❖ ELIZATXO IKASTOLA

Guraso topaketak bihar hasiko dira

Elizatxo ikastolako Elkarbizitza Batzordeak guraso topaketak antolatu ditu: *Haurren garapen psikologikoa eta aita-amen garrantzia seme-alaben heziketan* izenarekin. Bihar izango da lehenengo saioa 16:45etan, 2-5 urteko gurasoentzat. ||

❖ GOIZ EGUZKI

Udaberriko zirkuitura joan nahi duenak gaur du apuntatzeko eguna

Goiz Eguzki jubilatutakoan, bidaia antolatu dute apirilera. Udaberriko zirkuitua deitu diote eta joan nahi duenak gaur eman beharko du izena Goiz Eguzkin bertan, arratsaldeko 16:00etan. Bidaia apirilaren 11tik 19ra izango da eta Salamanca, Caceres, Segovia eta Madrideko bazterrak ezagutzeko aukera izango da. Prezioa 666 euro dira. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pisua salgai Sagastialden. 2 logela, sukaldea, komuna eta saloia, amueblatua. (27.000.000 pztla). Deitu: 637 959 992 / 630 118 545.

Garajea alokairuan Akarregin (autokarabana batentzako). Deitu: 609 767 673

Pisua salgai Karabalen. 60m2, 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.

Pianoa salgai. Yamaha U1F modeloa, bigarren eskukoa. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatua, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta berbrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Zure arazo eta blokeo pertsonalekin lagunduko zaitut. Bide hauek erabiliz: **Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach...**(Alicia C.C.). Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)